

# **BILBOKO NOGARO ERAIKINAREN AKTIBAZIOARI BURUZKO AGERTOKIEN AZTERKETA**

*Posted on 28/02/2026 by Naider*

Bilboko Udalak, Proiektu Estrategikoen Bulegoaren bidez, **Nogaro eraikina aktibatze eta berrerabiltzeko agertoki posibleen azterketa** sustatzen du, hiriaren dinamika urbanoan eta ekonomikoan izan dezakeen rola aztertzeko helburuarekin. Udal proiektu estrategikoak definitu eta garatzen laguntzeko ezarritako akordioaren baitan, lana **erabaki publikoak orientatzeko** eta hiri-ekimen berriak abiaraztea errazteko ezagutza sortzera bideratzen da.

Proiektua eraikinaren erabilera-alternatibak identifikatzera bideratzen da, **sektore ekonomiko, jarduera-eredu eta zerbitzu-tipologia desberdinen** konparazioan oinarrituta. Ikuspegi honek aukera ezberdinen ezarpen-potentziala eta Bilboko hiri-estragiekin duten lerrokatzea ebaluatzeko aukera ematen du. Halaber, **eskari potentzialaren azterketa** txertatzen da, etorkizuneko erabilerekin lotutako publikoen behar eta itxaropenak ulertzeko.

Prozesu honetan, Udalak Naidarren laguntza du, Ikerfelekin lankidetzan; bi erakundeek **analisi-metodologia, lurralde-ezagutza eta ikerketa-gaitasunak** eskaintzen dituzte aukerak identifikatzeko, alternatibak ebaluatzeko eta jarduera-ildo posibleak oinarritzeko. Emaiza gisa, oinarri analitiko bat lortzen da, Nogaro eraikinaren kokapen estrategikoa baloratzeko eta haren aktibazioari buruzko etorkizuneko erabakiak orientatzeko, **hiriko garapen ekonomiko eta sozialean eragina duten hiri-proiektuak** bultzatuz.



Recreación del Edificio Nogaro con nuevos usos.

